

Merkatu Plazako Merkatarien Elkarte

Maite Moreno, Maite Gorritxategi eta Asier Bouzo dira gaur egun elkarte honen buru. Euren hartutako erabakiak gainontzeko dendariekin adosten dituzte eta datozen urteetarako hainbat erronka dute eskuartean.

- Zein urtetan sortu zen Elkarte?

1987ko ekainaren 29an.

- Zenbat kide zarete?

15 merkatarik osatzen dugu Elkarte. Duela urte batzuk kide gehiago ginen, baina merkatu plazako denda kopuruak ere behera egin du.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gure lana Merkatu Plaza dinamizatzea da, hainbat ekitaldi antolatuz. Horretaz gain, Udalarekin harremana dugu, gure barne arazoak konpondu ahal izateko.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Asteazkenero biltzen gara elkarte hiru kide, Merkatu Plazan, 15.00etan.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urte osoan hainbat ekintza antolatzen ditugu. Errege-egun bezperan, Gaspar erregea Merkatu Plazan egoten da. Udalberrian, berriz, dastaketa antolatzen dugu. Inauterietan ere egitarautxoak izaten dugu (Ermuko Merkatarien Elkartearekin batera) eta baita ere Amaren egunean, Jardunaldi Gastronomikoetan eta Santixauetan. Udazkenero, berriz, txistorra dastaketa egiten dugu Minbiziaren Kontrako elkartearekin batera eta aurten arte jaiotza ipini izan dugu Gabonetan. Tartean zozketaren bat egiten ohi dugu eta aurten, gainera, ekintza bereziak egon dira Merkatu Plazaren 25. urteurrena ospatu dugulako.

- Aurrera begira zeintzuk erronka dituzue?

Hainbat gauza egiteko asmoa dugu. Alde batetik Merkatu



Plaza barrutik margotu eta argiztapena aldatu nahi dugu eta horretarako Udalaren diru-laguntzaren zain gaude. Pertsona nagusiei sarbidea errazteko, 1. solairuko merkatariei beheko solairura aldatzea proposatu zaie. Momentu honetan zenbait postu daude libre solairu horretan eta aldaketa horrek bizitasuna emango lioke Merkaturari. Dena erabat modernizatzea da gure asmoa, bai barrutik zein kanpotik ere, gazteak Merkatura erakartzeko, hori baita gure gaur egungo benetako erronka.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Ermuko Merkatu Plazan gaude, denda-ordutegian.

Dorleta Videla

SAN ANTONIO

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA

CERVECERIA

ZYTIK

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78